



ATAUNGO UDALA

Bandoa A T A U N

2023KO AURREKONTUA PRESTATZEN


2023ko aurrekontua prestatzen ari gara eta laster onartuko dugu. Iaz aurreikusitako lan batzuk nahi baino motelago badoaz ere, aurrera doaz, eta hori da garrantzitsuenena. Aurtengo aurrekontuan, ohiko lanez eta inbertsioez gain —herriaren eraikin, mendi eta larreen mantentze-lanak, baserri-bideak konpondu...—, energiaren arloak pisu handia izango du. Martxan dago udalaren eraikinetan plaka fotovoltaikoak jartzen hasteko aurreneko lizitazioa, laster esleituko dira lanak, eta asmoa da datozen hilabeteetan plaka gehiago jartzea, baita kargagailu elektrikoak ere. Gizarte zerbitzuetan eutsi egingo diogu familien larrialdiko laguntzetara eta esku-hartzeetara bideratutako diru-kopuruari; izan ere, 2021ean % 30eko igoera izan zuen, eta oraingoz nahikoa da herrian dauzkagun premiak asetzeko. Adinekoen dinamizazioarekin eta jarduerekin jarraituko dugu, kultur elkarteekin dauzkagun hitzarmenak berrikusi eta eguneratu egingo ditugu, eta Botika Etxea zer izan behar duen erabakitzeko parte-hartze prozesua egingo dugu, ondoren proiektua idazteko. Horrez gain, esleitu berri dugu Hirigintza Plan Orokorra berrikusteko nahiz berritzeko lana, eta eginkizun horretan ere nahitaezkoa izango da herritarron parte-hartzea.

Udalak kudeatzen dituen zergetan eta tasetan ez da igoerarik izango. Hortaz, 2023an bere horretan geratuko dira.

BOTIKA ETXEA ETA ALBOKO LURSAILA

Dakizuenetz, aspaldiko asmoa zen San Martingo plazan dagoen Botika Etxea (jatorrizko izena Aierdi Enea du) eskuratzea. 2019ko uztailean hasi ginen jabeekin harremanetan eta negoziatzen. Erabakigunea Bartzelonan zegoen, bitartekariak Bilbon, eta haien hizkuntzan aritu garen arren, ez da samurra izan elkar ulertzea eta adostasun batera iristea. Denbora honetan guztian bi aldiz lortu dugu akordioa, baina bi aldietan atzera egin dute, eta, azkenean, desjabetze-espeditente bat abian jartzea beste erremediorik ez dugu izan. Hori martxan jarri bezain pronto, negoziatzeko nahia agertu zuten, 2021eko uztailean adostutakoa betetzeko prest agertu ziren, eta hasiera batean uste genuen baino samurragoa izan zaigu tratua ixtea. Abenduaren 30ean sinatu genituen eskriturak Ordiziako notariotzan. **Ataungo Udalak 60.000 euro ordaindu ditu Botika etxeagatik (bere lursail eta guzti), eta beste 60.000 euro alboan duen lursail eraikigarriaren truke.** Era horretan, birpartzelatutako lursail horren % 74,11 udalaren jabetzakoa da orain.

Informazio gehiago:

komunikazioa@ataun.eus  616758758

 @Ataungo_Udala  Ataungo_Udala

PLAKA FOTOVOLTAIKOAK UDAL ERAIKINETAN

Plaka fotovoltaikoak jartzen hastera goaz udal eraikinetan, eta kargagailu elektrikoak ere jarri nahi ditugu. Horri guztiari buruz hitz egiteko eta **herritarron parte hartzea (energia komunitatea, kontsumo partekatua...)** nolakoa izan behar duen lantzen **hasteko, bi bilera-hitzaldi antolatu ditugu**. Lehenengoa urtarrilaren 17an izango da, San Gregorioko Elkargunean, 18:30ean, eta bigarrena, urtarrilaren 18an, udaletxeko pleno aretoan, 18:30ean. Gonbidatuta zaudete!

URTE BERRIA, ARAZO ZAHARRA

Urtea joan eta urtea etorri, badirudi batzuen utzikeriak ez duela erremediorik. 2023ko lehenengo bando honetan ere zaborraren inguruko oharra egin beharrean gaude. Izan ere, onartezina da Lizardi inguruko edukiontzien ondoan dagoen zikinkeria. Mesedez eskatu nahi dizuegu zuen etxeetan egiten ez duzuen ez egiteko denona den lekuetan. Tristeia da gehienok ondo egiten duguna gutxi batzuek hondatzea. Guk lanean eta neurriak hartzen jarraituko dugu.



URTE BERRI ON!


Joan da 2022a eta hemen dugu 2023a. Mundu mailan eta bizi garen gizartean aldaketa handiak gertatzen ari dira. Bizimodua estutzen eta zailtzen ari zaigu, eta ziurgabetasun garaiak bizi ditugu: prezioak etengabe igotzen, oinarrizko premiak asetzeko estutasunak, inguratzen eta irensten gaituzten erdaren eraginez euskaraz bizitzeko gero eta oztopo handiagoak, klima-aldaketari berehala eta urgentziaz aurre egin beharra... Ez daukagu badaezpadako erronka herri gisa elkarrekin aurrera egiteko. Argi daukagu, ordea, zer nahi dugun, eta hori lagungarri izango zaigu, zalantzarik gabe, bidea egiten elkarrekin jarraitzeko.

2019an hasitako legealdiaren azken hilabeteetan sartuta gauden honetan, Ataungo Udalean lanean jarraituko dugu Ataun guztiontzat herri bizigarria izan dadin. Udaleko zerbitzuak indartuz, herrian ditugun zerbitzuei eta auzoen arteko orekari eusteko ahalegina eginez, kalitatezko kultura-ekitaldiak antolatuz, herriko elkarteekin eta eragileekin elkarlanean arituz, ingurumena zainduz, behar diren azpiegiturak eta lanak eginez, eta bertako produktuak erosiz, kontsumituz eta oparituz jarraituko dugu herria egiten.

Urte berri oparoa izan dezazuela! Zaindu zeuen burua eta zaindu ingurukoak!

Ataunen, 2023ko urtarrilaren 2an.

Informazio gehiago:

komunikazioa@ataun.eus  616758758

 @Ataungo_Udala  Ataungo_Udala